

ZER DIRA ILARGI EGUTEGIAK?



Bruno /Germany, Pixabay

Gaur egunean gure egutegia, mendebaldeko beste herrialdeetan bezala, kultura latinoek zabalduko eguzkiaren zikloarekin araberakoa da, alegia 365 egun, 12 hilabete eta 7 eguneko asteak osatua. Hala ere antzinatik iritsi zaizkigun gure hizkuntza, aztarna eta usadioek gure kulturak ilargialdiak kontuan izaten zituztela erakusten digute. Nahiz eta egutegi idatzi bat ez izan (bai harrian zizelkatuak ordea) naturako hainbat gora behera erregular aurreikusteko, hala nola, mareak, nekazaritzako lanak, urtaroen berezitasunak, emakumeen zikloa, ehiza, ... ilargiaren zikloan oinarritzen ziren gure arbasoak.

Baserriko lanetarako oraindik entzun ohi ditugu ilargialdi jakinak itzaroteko gomendioak eta nekazaritza ekologikoaren barruan kokaturiko eredu biodinamikoak nekazaritza jardura ezberdinak burutzeko ilargiaren zikloan oinarrituriko egutegi zehatz bat garatua du.

Jakina da lurra eguzkiaren inguruan burutzen duen urtebeteko translazio mugimenduaren ondorioz, eguzkia gorago edo beherago agertu ohi dela urtaro batetik bestera. Ilargiak luraren inguruan duen mugimenduak ia hilabete irauten du eta eguzkiaren antzera, zerumugan gorago edo beherago agertu ohi da bira bakoitzean. Beraz, ilargia gau batetik bestera gorago agertzen denean, ilgora deitzen diogu eta beherantz dioanean ilbehera; ez du zerikusirik ilbetetik ilbeherako tartean eguzkiaren argiztapenaren ondorioz ilargiak duen itxurarekin.

Ondorioz, gomendio orokor hauek eskaintzen dizkigute ilargi egutegiek:

- Ilgorako aldian: lurraren azaletik gorako landare zatietan kontzentratzen da landarearen aktibitatea (zurtoin, hosto, e.a.). Horregatik garai egokia da loreak, fruituak edo haziengatik kontsumitzen ditugun barazkiak erein edo landatzeko, freskoan jateko barazkiak jasotzeko, haziak biltzeko, usain belarrak eta sendabelarrak jasotzeko, txertatzeko, zuhaitzak botatzeko edo lehortuko ditugun landareak jasotzeko.
- Ilbeherako aldian: lur azaletik behera dago aktibitate gehiago (sustraietan). Beraz garai ona da inausketarako, hosto, sustrai, zuztar, tuberkulu edo erraboilengatik kontsumitzen ditugun barazkiak erein edo landatzeko, lurra lantzeko, ongarrizatzeko edo konpost edo simaurra maneatzeko.